

## **15.ZIRKULARRA**

2020-21 Denboraldia

### **EMAKUMEZKOEN OHOREZKO KADETE TXAPELKETA**

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Ohorezko Kadete lehiaketa antolatzen du, honela:

#### **1) KLUB PARTAIDEAK**

##### **1 TALDEA**

- 1 MARIÑO C.D.
- 2 TOURING KE
- 3 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE (I)
- 4 INTXAURDI K.E.
- 5 AÑORGA K.K.E
- 6 HERNANI C.D.
- 7 ZARAUTZ K.E.
- 8 GOIERRI GORRI F.K.
- 9 TOLOSA C.F.
- 10 EIBAR S.A.D.
- 11 LEINTZ ARIZMENDI K.E. (I)
- 12 ANAITASUNA C.D.
- 13 ZUMAIAKO F.T.

#### **2) LEHIAKETA SISTEMA**

**Emakumezkoen Ohorezko** Kadete txapelketa **13 taldek** osatzen dute, multzo batean banatuta. Bi fasetan jokatzen da: puntuen bidez eta bi itzulietara (26 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

Datozen denboraldietarako taldea 16 taldetan finkatu nahi denez, **ez da jaitsierarik izango.**

#### **3) ADINAK**

Txapelketa honetan 2004, 2005 eta 2006 urtetan jaiotakoek parte hartu dezakete.

#### **4) LIZENTZIAK**

Lizentzien kopuru maximoa 25 dira. Halere denboraldian zehar altak eta bajak konpentsatu daitezke.

#### **5) BALOIA**

Baloia, 5 zenbakikoa izango da.

## 6) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

80 minutu, bost aldaketa, eta gehienez zazpi ordezeko eserlekuan.

## 7) XEDAPEN OROKORRA

**Emakumezkoen F-8 Infantileko taldean izena emanda duten azken urteko jokalaririk infantilak, kadete mailan izena eman eta jokatu dezakete ondorengo izapidek alde aurretik betetzen badira:**

- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera arrazoitua, proposatutako jokalaririk zerrendarekin.
- Eskolarteko infantilen, kadete mailan parte hartzeko Foru Institutuziotik baimena izatea.
- Azterketa Medikuaren ziurtagiria aurkeztea
- Mutualitatean afiliatua egotea
- Dagokion lizentzia federatiboa tramitatzea.

Aipatzen diren baldintzak betetzen badira, azken urteko infantil neskek segidako goi mailan (kadetea) parte hartu dezakete, **baina talde infantilean bidegabeki jokalaririk zerrendan sartu izan dela kontsideratuko da aste buruan bi partiduetan parte hartuko balu nahiz eta egun ezberdinetan izan.**

## 8) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziiplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenez, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

## 9) COVIDren ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

**Gipuzkoako Futbol Federazioaren lehiaketak garatzeko aplikazio-protokoloa.**

Fase bakar batean jokatzen den Emakumeen Ohorezko Kadete mailari dagokionez, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Talde guztiek ezin badute gutxienez beren kategoriari dagozkion partiden % 60 jokatu, lehiaketa baliogabetzat joko da.


b) Talde guztiek gutxienez partiden % 60 jokatu ahal badute, koefizientearen irizpidea erabiliko da, hau da, jokatutako partiden artean lortutako puntu kopurua. Berdinketaren bat gertatuko balitz, aldeko eta kontrako golen alde erabiliko litzateke. Kasu honetan sailkapena behin betikoa izango litzateke igoerak eta jaitsierak zehazteko.

### **Kontuan hartu beharrekoak:**

- Jokatu ezin diren partidak Lehiaketa Batzordeak ezarritako data baino lehen berreskuratu beharko dira, bertan behera utzi diren hurrenkeran, ordena hori aldatu ahal izango da Federazioaren baimenarekin eta COVID-19tik eratorritako arrazoiengatik. Partidarik gabeko asteburuak edo jaiegunak kontuan hartzeko ahalegina egingo da.
- Konfinatuta egon den talde batek hurrengo partida jokatu beharko du, baldin eta konfinamendua asteazkena (barne) baino lehen altxatzen bada, ostegun eta ostiralean saioen bat egiteko denbora daukala ulertuta.
- Klub bakoitzeko COVID arduradunak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio Federazioari kasu positibo bat edo konfinamendu masibo bat duenean, kaltetutako pertsonen kopurua eta Osakidetzak konfinatutako pertsonen normaltasunera itzultzeko eman zaizkien epeak zehaztuz.
- Talde batek atzeratutako jardunaldiari aurre egin ahal izango diola ulertuko da dagokion taldeko federazioan izena emandako jokalarien % 70 gutxienez duenean.

**Donostia, 2020ko urria**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL

  
Iñigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General